

...eta kitto!

720 zkia. 2010-V-7

ASTEKARIA

TOKIKOM



Neurrira jasotako etxetxoak

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



**Eibarko hiru dentista dira Durangoko erdigunean dagoen
Ekoden klinikako lan-taldea osatzen dutenak.
Javier Etxaniz, Virginia Garcia-Pascual eta Miriam Magunacelaya
doktoreak teknologia berrienak dituzte euren esku.**

**ZEIN TRATAMENDU
BERRI DIHARDUZUE
APLIKATZEN?**

Inplantologian zein Ortodontzian azken aurrerapenekin dihardugu; horietako bat da, esaterako, "All On Four" inplanteetarako teknika berria.

**ZERTAN DATZA
"ALL ON FOUR"
TEKNIKA HORI?**

Hezur gutxiko pazienteekin erabiltzen dugun teknika da, BAKARRIK 4 inplanteekin hortzeria OSOA finkatzea ahalbidetzen diguna; hori lortzen da inplanteak luzeagoak direlako eta euretako bi angelua egiten dutelako (argazkian ikusi daitekeenez). Modu horretan, tratamenduaren kostea merkeagoa da -8 inplante ipini beharrean, bakarrik 4 jarri denbora ere laburragoa da.

Teknika honek eskaintzen duen beste abantailetakoa bat da pazienteak ez dituela hilabeteak itxaron behar hortzak

inplanteetan ezartzeko, zirujia egin eta hurrengo egunerako pazienteak hortzak jasotzen baititu inplantei aingurata eta mastekatzen hasi daiteke.

**TEKNIKA HORREK
MINIK ERAGITEN DU?**

Ez. Zirujian bertan minik ez izateaz gain, ondoren ere bizitza normalarekin jarraituko du.

**ADINEAN
BADA TOPERIK?**

Ezta. Baditugu pazienteak 80 urtetik gorakoak eta ez dute inolako arazorik izan.

**KOSTE EKONOMIKO
ALTUKO
TEKNIKA DA?**

EKODEN-en prezio oso konpetitibotant dihardugu; horregatik, edozein dago gonbidatuta gure instalazioetara etorri eta doaneko aurrekontua eskatzera, jakinda koste hori interesik gabe finantzatuko diogula. Prezioak gure

web orrian aurkitu ditzazkezue: harritu-ko zarete!

**ZEIN ORDUTEGI DUZUE
JENDEA HARTZEKO?**


Eguerdian ere ez dugu ixten, modu horretan lanera joatea nahi duten pazienteen beharrei ere erantzuteko.

**ORTODONTZIARI
DAGOKIONEZ, ZEINTZUK
DIRA GEHITUTAKO
TEKNIKAK?**

Marruskadura txikiko Bracket-ak erabiltzen ditugu tratamendu denbora urte bitik batera murrizteko, helduekin zein haurrekin.

**ETA HORTZ-ESTETIKAREN
ARLOAN?**

Portzelanazko orrialdeekin dihardugu kalterik egin gabe hortz zuriagoak nahi dituztenekin; eta badugu ere zuritze profesionaleko laser argia, saio bakaarrean eta prezio oso onean emaitza ezinhobeak ematen dituen.





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GANBELU.- Altua, kankailua, gangarra. "Ikusi dozu hemen mutil ganbelu bat?".

GANGAILLU.- Oso handia, neurri gabekoa. "Ezezagun gangaillu batek, aintzaille egin gura eban".

GANGAR.- Saskar, tentel. "Mutill gangar batek, nahitta apurtu desta pitxarra".

ESKUTITZAK

TANTANEZ TANTAN, EIBARREN EUSKERAZ BIZII

Oin dala urte bi Gantxillaren ekimena egin genduan, *Tantanez tantan Eibarren euskeraz blai* lempian. Herrixan euskeriaren olatua Urkuzutik Untzagariño eruatia lortu genduan zueri esker.

Lehen be izan dira Eibarko euskalgintzak azkeneko urtiotan egindako ekimenak: Egunkariaren aldeko mobilizaziñuak, Korrikak gure kaliak jendez betetzen erakutsi dogu eibartarrok euskeraz bizitzeko dakagun gogua. Halanda be, oiñdiok, asko dogu egitteko gure herrixa euskalduntzeko.

Eibarren euskeraz bizitzeko euskal komunitadiaz garanak Eibar euskalduna barrero eraiki bihar dogu. Hori lortzeko moduetako bat kalera urtezia da, holako ekimenak eginda, gure nahixa herriko lau bazterretan esatera.

Hori dala-eta, batu gaittezen guztiok: euskalgintza, ikastetxe, herriko kirol talde, musikari, artista, beste erakundiak, ume, gazte, guraso, heldu, nagusi... eta egin deigun bidia! Aurten be, maiatzaren 22xan Gantxillarekin, eta tantanez tantan, euskeraz bizi gura dogula esateko aukera izango dogu.

Horretarako, maiatzaren 13an, arratsaldeko 19.30xetan, Kulturalian egingo dogun aurkezpen batzarrera etortzera gonbidau mahi zaittugu. Bertan zihetzuko dogu talde bakotxa nun egongo dan ibilbidian.

Honekin batera, ekimenian parte hartzera be gonbidau nahi zaittugu, kaleratu deigun barrero be euskeraz bizitzeko dakagun gogua!

EIBARKO EUSKALGINTZA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Estatuaren parte hartzeari dagokionez, Espainian eman dira azken urteotako urrats kaxkarrenak, bai krisiaren aurretik baita bera azalerratu eta gero. Hainbat apustuk kalterik besterik ez diote egin instituzio-kutxei: zeharkako zergak finantziazio-iturriztat hartzeak, patrimonio zerga kentzeak edo oso adierazgarria den 400 euroko beharpen fiskalak. Eta sindikatuek ere espabilitzeta daukate: Greziaren asuntzarekin gogorrago jakatu beharra dago. Ez du-te ikusten krisia eurek ordaindu behar dutela?"

(Javier Gutiérrez, Ekonomia irakaslea)

"Zientzialaria ez da izan behar gizartetik babesteko bere laborategia erabiltzen duena; alderantziz, gizarteari jakinarazi behar dio zer lortu duen, horrek zertarako balio duen eta egiten duen hori zergatik egiten duen. Euskal Herrian ere azken 30 urteetan aldaketa handiak izan dira: bane produktu gordinaren %1,6 inbertitzen da gaur egun zientzian; eta ni partaide izan nintzen Eusko Jaurlaritzan, lehenengoan, %0,1 baino gutxiago zen. Gai hauekin soseguz jokatu behar da, talentua ez delako dekretuz sortzen"

(Pedro Miguel Exenike, fisikaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

SANJUANETAKO POSTUAK


Udalak aurtengo San Juan jaietan salmenta postuen eskaerak egiteko epea zabalik dagoela eman du aditzera. Eskaerak Pegoran, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan aurkeztu behar dira, maiatzaren 20ra arte. Eskaera orria behar bezala beteta entregatzeaz gain, NAN edo pasaportearen fotokopia (Europako Erkidegotik kanpoko atzerritarrek AIZ-rena) aurkeztu beharko dute interesatuek.

NAGUSIENDAKO EGONALDIAK

Aurtengo udan nagusiendako aldi baterako egonaldiatarako eskaerak Udaleko Gizartekintza sailean egin beharko dira (Portalean, 4. Pisuan, 943-708440 telefono zenbakian), alde zurretik txanda eskatuta. Hauek dira eskaerak onartzeko azken egunak: uztaileko aldi baterako egonaldiatarako maiatzak 14, abuztuko aldi baterako egonaldiatarako maiatzak 28 eta iraileko aldi baterako egonaldietaako ekainak 11.

Internet Eguna datorren asteburuan

ASTELENA FRONTIOIAK 2010-EKO INTERNET EGUNA TOPAKETA HARTUKO DU MAIATZAREN 14-TIK 17-RA, Nazioarte mailan Internet Eguna gogorazten dela aitzakiatzat hartuta. Horri jarraituta urtero EAEko herri batean antolatuta ohi da informatikaren inguruko topaketa berezia eta aurtengoa Eibarri egokitu zaio hitzorduaren antolaketaren ardura. Topaketan punta-puntako teknologiek eta sareak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko aukera paregabea eskainiko da. Hiru egun horietarako egitarau berezia prestatu dute eta, besteak beste, Wii-an tenisean jokatzeko, Guitar Hero-an jarduteko, Second Life erabilia batzar birtual batean parte hartzeko edo Google Earthen bitartez munduko edozein txokora bisitan joateko aukera izango du hala nahi duenak. Horrez gain, 3D-ko jokoak, burmuinarekin kontrolatzen den joko bat eta interneten libre ibiltzeko ordenagailuak egongo dira frontioian.



Barnetegi teknologikoa ekainean

DEBEGESA DEBABARRENEKO GARA-PEN EKONOMIKORAKO ELKARTEAK ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAKO KUDEATZAILEENTZAT pentsatutako barnetegi teknologikoa antolatu du, ekainaren 8 eta 9rako. Bertan informazioaren teknologiak aztertuko dituztela aurreratu dute arduradunek: *"Hain zuzen ere, gure produktibitatea eta baita gure negozioarena ere hobetzeko orduan informazioaren teknologiak nola erabili daitezkeen ikusiko dute parte hartzeraz animatzen diren"*. Aipatutako egun bi horietan, Bermeoko Atxurra hotelean egingo den barnetegian parte hartu ahal izateko alde zurretik izena eman behar da, pymes@debegesa.com helbidera idatzita. Barnetegiaren prezioa 100 eurokoa da.

Ekintzailearen Eguna

Bestalde, urteroko moduan, Ekintzailearen Eguna gogoratzeko egitarau berezia antolatu du Debegesak. Maiatzaren 20an garatuko dira egun horren inguruan antolatutako jarduerak nagusiak, Debegesaren egoitzan bertan, Azitaingo industrialdean, baina egun horren aitzakiarekin beste ekimen batzuk garatuko dira maiatzean zehar: besteak beste, autoenplegurako tailerrak eskainiko dira Debabarreneko herri guztietan; horrez gain, Debegesaren egoitzaren sarreran autoenpleguaren eta ekintzailetasunaren gaine-



Barnetegi Bermeoko Atxurran egingo da.

ko informazio osoa nahi duenarentzat eskuragarri ipiniko dute eta, gainera, Debegesako teknikaria bertan egongo da, beharrezkoak diren azalpenak emateko prest.

Maiatzaren 20ko ekitaldi nagusia 18.00etan hasiko da eta egun horretan Udalbusak zerbitzu berezia eskainiko du: Debegesara joateko autobusa Azitaingo ohiko geltokitik irtengo da, 18.18etan. Parte hartu nahi duenak alde zurretik izena eman beharko du, debegesa2010@gmail.com helbidera idatzita edo 944 700 743 telefono zenbakira deituta.



Barianteko leherketak

EGUAZTENEAN AILEGATU ZIREN BARIANTEAREN AZKEN FASEKO BEHARRETAN ERABILIKO DITUZTEN HABEAK ETA HORIEK MUGITZEKO GARABIAK: Legarre eta Wenzeslao Orbea lotuko dituen zubia eusteko habeak oso handiak dira, bakoitzak 20 bat metroko luzeera dauka eta, gainera, pisu handia daukate. Hori dela eta, garabi bereziak erabili behar izan dituzte habeak behar den moduan kokatu ahal izateko eta horiek tokia izan zezaten, hainbat aparkaleku kendu zituzten Amaña kalean. Aparteko zailtasuna duten behar horiekin batera, lehenengo leherketak ere aste honetan hasi dira, Arregieta eta Tiburzio Anitua kaleetan. Leherketak direla eta, Amañako hainbat tokitan trafikoa moztuta egongo dela azaldu dute Udaltzainek.



Udala eta elkarteen arteko hitzarmenak

EIBARKO UDALAK 30 HITZARMEN SINATU DITU HERRIKO 24 KOLEKTIBOREKIN EKINTZA KULTURALAK, JAI-GIROKOAK ETA AISIALDIKOAK ANTOLATZEKO.

Guztira 338.417 euro banatuko ditu Udalak elkarteen artean, iaz baino %26 gutxiago. Sinadura astelehenean egin zen udaletxean eta Miguel De los Toyos alkateak aipatu zuen elkarre hauek herriko kulturaren, euskeraren eta jaien "indar bi-ziak" direla.

%26 gutxiago ...eta kitto!-rentzat

Kolektiboek iaz baino diru gutxiago jasoko dituzte ekintzak antolatzeko, baita ...eta kitto! Euskara Elkarteak ere. Aurten 51.930,75 euro jasoko ditu ...eta kitto!-k iazko 70.030 euroen aldean, guztira %25,84 gutxiago. Izan ere, Berbia Emon egitasmoa bertan behera utzi da (11.860 euro); eta Txikitto paperean argitaratetik, on-line irakurria izatera pasatu da (6239,25 euro).



Lokarriren mahai-ingurua eguaztenean

BRUSELAKO ADIERAZPENERAKO ATXIKIMENDU KANPAINARI EKIN DIO LOKARRIK ETA, HORREN HARIRA, "Nola sendotu bakerako aukera?"

izenburuko mahai-inguru zikloa antolatu dute. Eibarren eguaztenean, maiatzaren 12an egingo da mahai-ingurua, 19.30etan Portaleko areto nagusian. Paul Rios Lokarriko Koordinatzaileak eta Garbiñe Biurrun Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gizarte Saileko buruak hartuko dute parte. Lokarri-ko ordezkariak adierazita-koaren arabera, "gatazkak

konpontzen adituak diren nazioarteko 20 eragilek sostengaturiko adierazpen horrek bi dei biltzen ditu: batetik, sueten iraunkor eta erabat egiaztagarria eskatzen dio ETARI eta bestetik, Gobernuari erantzun egokia emateko. Gure iritzian, herritar gehienek eskaerak eta nahiak islatzen ditu adierazpenak. Gizarteak luzaroan dihardu bakerako aukera bat zabal dadin beharrezkoak diren pausoak emateko eskatzen eta, horregatik, Lokarriren zein besteen hausnarketak herritar ororekin konpartitzea garrantzitsua dela uste dugu".

auzoric auzo



Jaiak betetako asteburua Santa Kurutzen

Asteburuan jai giroa nagusituko da Udalak eta Santa Kurutzeko Jai Batzordeak prestatu duten egitarauari esker. Bihar 10.30etan hasiko da programazioa, kanpai-errolbota eta suzirikin. 11.00etan, berriz, meza ospatuko dute eta, ondoren, han batutakoei hamaiketako banatuko zaie. Eguerdian Juan Mari Narbaiza eta José Luis Gorrotxategi bertsolarien saioarekin gozatze-ko aukera izango da. Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak ere 12.00ak aldera hasiko dute euren jarduna. 12.30etan haurrentzako jolasak hasiko dira eta jarraian, 13.00etan, auzoko gazteen eskutik herri jolasen txanda ailegatuko da. Ondoren bazkaria egingo da Ixuan eta bazkalosteko erromeriarekin amaituko dira zapatuko ekitaldiak. Domekako egitaraua bazkaltzeko ordua ailegatu bitartean garatuko da: Meza Nagusia amaituta, piskolabisa eskainiko zaio jendeari eta ondoren, 12.00etan, soka-dantzaren txanda ailegatuko da, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik. Musika, berriz, Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilariak ipiniko dute eta 13.00etan herri kirolak hasiko dira: Fausto eta Ugaitz Mugerza aita-semeak aizkoran jardungo dute eta Urdax eta Beñat gazteak, berriz, harrijasotzen.

eibar kaleka

Elgeta kalea

Bista Eder kaletik kanposanturako bidea hartzeko eskilaren gainean irakur daiteke pegora bakarrak osatzen duen Elgeta kalearen izena. Kale txikia izanda ere, gure herriko kantutegira joz gero "Eibar tiene su entrada" abestian Elgeta-kaleari erreferentzia egiten zaiola ikus dezakegu.

Pegora kopurua: 1. Erroldatutakoak: 39.



asteko
15.590
datua

errenta-aitorpen aurkeztu ziren Eibarren 2008ko kanpainan eta horietatik 708 baino ez ziren euskeraz tramitatu, Ogasunak horretarako aukera ematen duen arren. Herririk herri jasotako datuei begira, Azpeitia izan zen euskerazko aitorten gehien aurkeztu zituena, 2.207, Donostiaren atzetik (3.503). Gipuzkoan denera 409.432 aitorten egin ziren, 31.573 euskeraz.

Kultur Arteko Jaia domekan

ETORKINAK IZANGO DIRA PROTAGONISTA DOMEKAN 'KULTUR ARTEKO JAI'A'-N. 11.00ETAN HASITA FESTAN PARTE HARTZEN DUTENEN LURRELDEETAKO PRODUKTUEN DASTAKETA eta salmenta (Maroko, Bolivia, Kolonbia, Uruguay...), artisautza salmenta eta erakusketa, tailerrak (henna, kaligrafia arabiarra...) eta munduko musika eta dantza erakustaldiak (Lacasiunen eskutik dantza latinoamerikarrak eta, bestetik, Jui Jitsu brasildarra) egongo dira Untzagan.



Eguaztenean aurkeztu zuten aurtego jaialdia Portalean. / EKHI BELAR

1.500 bat etorkin

Azken urtean 40 bat etorkin jaso ditu Eibarrek eta 1.500 bat etorkinetan kokatzen da kopurua gaur egun (Eibarko herrita-

ren %5,6a). 57 herrialdeetatik etorritako pertsonak dira horiek, gehienak Marokotik (470), baina latinamerikarren kopurua handiagoa da.

Markel Olano herriko emakumeekin




MARKEL OLANO GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA EIBARREN BISITAN IZAN ZELA APROBETXATUTA, herriko hainbat andra elkarterekin bilera egin zuen, euren arazoak, beharrak eta nahiak ezagutzeko asmoz. Bileran parte hartu zuten andrazko gehienak Eibarko Emakumeen Mahaia osatzen duten elkarteetako kideak izan ziren, 40 bat denera, eta ekimena Udaleko Berdintasun Zerbitzuko arduraduna den Eva Juezek aurkeztu eta bideratu zuen.

'Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea'

KONTSEILUAK MANIFESTALDIA DEITU DU IRUÑEAN MAIATZAREN 15-ERAKO, "NAFARROAN EUSKARAZ BIZITZEDO ESKUBIDEA" LELOARI JARRAITUTA. Ekitaldi horren bitartez, "Nafarroako Gobernuari eta sostengatzen dutenei, aski dela" adierazi nahi die Kontseiluak, "asko garela orain eta etorkizunean Nafarroan euskaraz bizi nahi dugunak".

Kontseiluaren berbetan "oinarrizko eskubideen ukazioa da Nafarroako Gobernuak egiten duena, diskriminazioa". Horrela, Nafarroan euskalgintzako kide, erakunde eta elkarrekin manifestaziora joateko deia luzatzen dute, "kalera ateratzeko deia darra eginez, euskalgintzaren aniztasunetik eta batuta".



Deskontuak Eibarko dendetan

EIBARKO DENDARIEN ELKARTEKO TXARTELA DAUKATENEK %5-EKO DESKONTUA IZANGO DUTE ELKARTEARI ATXIKITUTAKO EIBARKO DENDETAN egindako erosketetan maiatza osoan eta ekainaren lehen hamabostaldian. Horrez gain, txartelaren titularrek beste abantaila batzuk dituztela gogoratu dute Dendarien Elkartearen arduradunek.

Bestalde, elkarteak martxan duen 'Komertzio ezinhobea, zi-

nez' kanpainaren barruan egindako zozketan, Coliseora zinea ikustera joateko sarrera bikotzak irabazi dituztenen izenak ezagutzera eman dituzte: Ainhoa Prellezo, Amaia Zubizarreta, Cristina Paredes, Jokin Hazas eta Nerea Gantxegi izan dira azken zozketako irabazleak.



Hirigintzako Batzorde Aholkularia

EIBARKO HIRIGINTZA PLANEAMENDURAKO BATZORDE AHOLKULARIAREKIN LEHENENGO BILERA EGINGO DU UDALAK DATORREN ASTEAN, astelehenean, 19.00etan. Herriko hainbat elkarte eta talde ordezkatzeko batzordeak behin baino gehiagotan eskatu dio Udalarari bilerarako deia egitea, baina orain arte ez dute bilerarik deitu. Asteleheneko lehen bilera horretan Batzordea osatuta geratuko da, aurrerantzean beharrez jardun ahal izateko. Aurrerantzean, Eibarko hirigintzarekin lotutako erabakiak behin-betiko hartu aurretik, Batzordeak gainbegiratu eta onartu egin beharko ditu.

Stephen Hawking fisikuak adierazi dau logikua dala pentsatzia bizitza jakintsua daguala Lurretik kanpo eta gizakixek eurekin kontaktua eukitzia sahiestu bihar dogula. Izan be, nahiz eta berak pentsau gehixenak mikrobixuak dirala, bizitza forma jakintsuak eraso bat suposatzen dabela esaten dau.

Extralurtarrak existitzen dirala pentsatzen dozu?



JOSE LUIS MURGOITIO
57 urte
maixua

Ezseptikua naiz gai horren gainian, baiña Stephen Hawkingek hori esaten badau, berak dakan ospe eta izen haundixekin, zeozergaittik izango da. Mundu osua harrittuta laga dau esandakuekin, baiña nik estralurtarrak ikusi arte ez dakitt zer pentsau, ez dot uste existitzen diranik.



VANESSA URZELAI
34 urte
langabia

Neri begittantzen jata Lurretik kanpo nolabaitteko bizitzia badaguala. Ez dakitt zelako itxura daken, ez dot pentsatzen pelikuletan emoten detsen itxuria dakenik, ez dakitt zelan imajiñau euren formia. Halanda be, zeozer badaguala begittantzen jata.

LOREA LARIZ
46 urte
irakaslia

Egixa esan, gai horrek ez desta bape kezkatzen. Izan leike estralurtarrak existitzia, zergaittik ez? Baiña momentu honetan gai horrek ez desta bape arduratzen eta ez dot horretan pentsatzen bez.



MANUEL AUGUSTO SOUZA
44 urte
pintoria

Beste bizitza modu batzuk daguzela begittantzen jata, ez gara bakarrak unibertsuan. Estralurtarrak ez dake zertan antenak euki, edo lau begi, edo berdiak izan; gu baiño perfektuaguak izan ahal dira, guapuaguak eta listuaguak.



LOKALA SALGAI

Azitaingo Industrialdearen
bulego eraikinean.

20 metro karratu.

1. Solairua.

Biltegirako egokia.

Sekulako prezioa.

Finantziazio erraztasunak.

Deba Beheko Industrialdea S.A.

adibiztasun gureak
espeziak para la transformación

DEBA BEHEKO
INDUSTRIALDEA



Tfnoa. 943 74 11 26 Faxa. 943 74 41 14

E-maila: debabeheko@industrialdea.spri.es

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - beheko eskua

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errausketa labea

Egoibonen (Signo poligonozko)

Partikular, mutua eta aseguru enosi zerbitzuak

Korako - Eskelak - Urteurrenako eskelak

Eskel Hesi osoko ospitaleen hartzen da lugu

Nazioa eta Nazioarteko itzulidok

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Maiatzaren 13an inauguratuko dabe Eibarko Armagintzaren Museuan "Artea eta Arkitektura Eibarren" izenburuko erakusketia. Uztaillaren 23ra arte Manuel Zabalak egindako eraikiñen maketak ikusteko moduan egongo dira, Portaleko 5. pisuan dagan museuak hartuko daben erakusketan. Arbizun jaixo, baiña bizitzaren zatirik haundiña Eibarren emon daben gizon honen zaletasunari esker, gure herrixan daguazten edifizietako batzuk, desagertuta daguazten beste batzuekin batera ikusi ahal izango dittugu, danak alkarren aldamenian eta, jakiña, jatorrizkoa baiño tamaiño txikixaguan.

Datorren astian zabalduko daben exposiziñuan Eibarko eraikiñ esanguratsu batzuren maketak erakutsiko ditu Zabalak, baiña bulego azpizan dittuan kartoizko kajetan txukun-txukun gordeta daguazten maketak beste toki batzuetan daguazten etxe eta basarrietan inspiratutako di-



Etxerako moduko eraikiñak

ra eta beste batzuk, barriz, artista honen buruan baiño ez dira existidu, bere esku trebiekin eraiki dittuan arte.

Zaletasuna askorendako bitxixa izango da, baiña oindiok bitxixagua da jatorrixa. Izan be, Zabalak kontau deskun moduan, "lehenago gure bulegua Untzagan eguan eta, San Juan jaixetan suzko-erroberak bota ostian, terrazan egurrezko makilla mordua geratzen ziran. Hórrek batzen hasi eta holan, beste barik, makillatxuekin gauzak egitten hasi nintzan. Lehelengo bordak eta holakuak egitten hasi nintzan, denporasan, baiña gero eta elemento gehixago sartzen jua nintzan, lehelengo kopixia egittera aillegau arte. Martuteneko palazixo baten maketia izan zan lehelengua".

Materixalak ondo aporetzatzen

Harrezkero 40 bat urte pasau dira eta, erregular, urtiak aurrera egiñ ahala, gero eta bihar gatxagueri heldu detse Zabalak. Hori bai, eraikiñeri detallerik txikixena be falta ez arren, dan-dana buruari eraginda lortu dau: "Lanparak egitteko boligrafuen puntak aporetzatzen dittut, kortiñetarako arropa zaharren zatixak... eta holan, balixokuak ikusten dittudan gauzak gorde eta maketak osatzen eta apaintzen juateko erabiltzen dittut. Hamen ez dago erosittako piezarik edo holakorik, dana neuk egindakua da, okumea, egur zatixak, kartoia, harrixak eta beste materixal batzuk erabillitta eta ondoren pintturiarekin apainduta, ez dot plantilla edo antzerakorik sekula erosi, dana asmatzen jua naiz".


Normalian, kopixau nahi daben eraikiñaren erretratuari begirata jarduten dau biharrian Zabalak: "Etxiari argazkixa etara eta hori izaten da segitzen doten modelua. Gaur egunian esisititzen ez diran eraikiñen kasuan, artxibo eta holakuetan gordeta daguazten irudixak oso erabilgarrixak egin jataz".

Pazientzia haundixa

Halanda be, Zabalak ez detsa aparteko meritorik ikusten

bere biharrari: "Umiak txikixak ziranian, beste askok egin daben moduan, eurendako gauzatuak egittiarren hasi nintzan honetan, edozeiñek egin leikiazten gauzak dira, horretara ipiñiz gero ez da aparteko ezer bihar". Baiña berak hori diñuan arren, besterik ez bada be pazientzia ederra bihar dala ezin leike ukatu, etxetxo bakotxaren detallieri begirada bat botatzia nahikua da horrekin konturatzeke. Eta artistiak berak esan deskun moduan, "bakotxarekin zenbat ordu sartu doten ez dakitt, ez naiz sekula horretan pentsatzen geratu, gustora egitten dittut, denporia betetzeke eta listo". Taillartxuan piskat begiratzen hasi ezkeru, etxe bihurtutako puro-kajak, itsulapikuak, neurrixagaittik kopiñendako aproposak izan leikiazten etxetuak... denetarik topau geinke. Han pillatzen diran kajetan daguazten maketak baiño ez dittu gorde berarendako, "beste guztiak lagueri erregalau detset. Badakitt maketetako bat Conneticut aldian daguala eta besteren bat Finlandian. Ez dittu sekula kontau egin dittudan maketa guztiak, baiña gitxi gorabehera 70 baten bueltan ibilliko dirala pentsatzen dot".

Dozena bat maketa ipiñiko dittu ikusgai Zabalak, berarendako lehelengo erakusketia



Eraikin ezagunak ezeze, basarrixak be oso gustoko ditu Zabalak.



izango dan honetan. Izan be, Zabalaren afiziñuak urte luzietako ibilbidia eukitta be, sekula ez eban pentsatzen bere maketak lagunartetik kanpora erakutsiko zittuanik, "nere make-ten barri udaletxian izan eben eta deittu egin zesten, make-tak ikusi nahi zittuela esanda. Hona etorri eta hamen nekana ikustian, segiduan pentsau eben erakusketia preparau bihar genduala eta hola, ixa konturau barik, hamen daka-



daz laguneri-eta banatzeko in-bitaziñuak".

Maiatzaren 13tik aurrera Museuan

Hillaren 13tik aurrera ikusgai egongo diran maketa guztiak Eibarko edifizienak izango dira, gaur egunian ikusi geinkiazten batzuenak eta desagertuta dagozen beste batzuenak: tren estaziñua, Markeskua jau-regixa, udaletxiaren fatxadia... danondako ezagunak dira; as-

kok martxan ikusi genduan Txaltxa Zelaiko arma probade-ruak be badaka bere replikia, bakarrik urtietan sartuta dagoa-zenak zutinik ikusi eben India-nokua famosuak beria dakan moduan; eta Arrajola eta Oto-lerdi basarrixak be ikusteko moduan ipiñiko dittu.

Erakusketia Museuan bertan egongo da ikusgai, Portalean. Orduategixari begira, barriz, kon-tuan izan museuaren orduategi-xa berezixa dala: Eibarko Arma-gintzaren Museuak eguaztene-tik zapatura arratsalde, 16.00-etatik 20.00etara zabaltzen dittu atiak eta domeketan, barriz, 10.00etatik 13.00etara. Astele-hen eta martitzenetan itxitta egoten da eta eguenetan muse-orako sarrera duan izaten da. Edozelan be, maketen erakus-ketia hartuko daben aretora sar-tzia duan izango da egunero.

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2010-2011 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La Salle
Eibar

Euskadi
2009

943 121 698

**maiatzaren
3tik 12ra**

TEEN-
AJEA



Gipuzkoako Foruko IV. Karting Kopan parte hartzeko sailkapen txanda egin zen duela aste bi Olabarrarian, eta lasterketa horretan parte hartu zezakeen lehen aldia bazen ere, Escuderia Eibarko Julia Agirre gazteak lehen postua lortu zuen. Kart-aren gainean maistra dela erakusten du zirkuitura ateratzen den bakoitzean.

JULIA AGIRRE, kart gidaria:

“Button eta Ayrton Senna miresten ditut”

- Nola hasten da zure moduko gaztea kart-ak gidatzen?

Aita auto lasterketetan ibiltzen da eta berarekin batera ezagutu dut mundu hau. Horrela, orain dela urte bi kart lasterketetan parte hartzen hasi nintzen.

- Denbora gutxian oso emaitza onak lortu dituzu. Nork irakatsi dizu auto horiek gidatzen?

Aitarekin ibili naiz ikasten.

- Asko entrenatzen zara?

Lasterketaren batera joan behar naizenean egun bat lehenago kart-ean ibiltzera joaten naiz txapelketa prestatzeko asmoz.

**- Zer sentitzen duzu kart bate-
ra igotzen zarenean?**

Ez dakit, gauza asko batera; zaila da esaten.

- Ez dizu beldurrik emoten?

Ez, ez, bat ere ez.

- Emozioa sentitzen duzu?

Bai, hori bai. Asko gustatzen zait eta gogo biziz igotzen naiz kart batean.

- Kart-ean ibiltzea zaila dela esango zenuke?

Lasterketaren batean maila handia badago, zailagoa da zu zeu ondo ibiltzea, gehiago exiji-

tzen dizulako. Baina berez ez dut uste zaila denik.

- Eta gogorra?

Ez, ez da gogorra. Lan asko egin behar da gidatzerakoan ikasi eta hobetzeko, baina ez da gogorra.

- Kanpotik mutilen mundua ematen du motorrarena. Gaztetxoan artean neska asko ibiltzen zarete?

Neska gutxi ibiltzen gara. Mutil gehiago dago kirol honetan, baina nik uste dut gero eta neska gehiago animatzen ari dela auto lasterketetan aritzera.

- Zure lagunei animatzeko esaten diezu?

Esan bai, baina eurei ez zaila gustatzen. Gainera, nahiko kirol garestia da.

- Zeintzuk dira zure idoloak autoen munduan?

Orain ari direnen artean Jason Button eta, gero, hilda dagoen Ayrton Senna.

- Zein da zure ametsa auto batean gainean?

1 Formularen ibiltzea. Agian gehiegi amestea da, baina lana egingo dut gutxienez. Hasteko ondo pasatzen saiatuko naiz.

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelara,
gaztelarik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA


elkartea@etakitto.com

Radio Eibar
C A D E N A
SER
104,0 FM

Isadi
LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Eibarko alkateak eta zinegotziek herriko ikasleak edukiko dituzte aurrez aurre maiatzean egingo den udalbatzar berezi batean. Irudi bitxi horren zergatia kontsumo jasangarria da, izan ere, hori sustatzeko proposamenak egingo dizkiete ikasleek herriko ordezkari politikoei.



AIde batean, herriko ikasleak (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergokoak). Bestean, herriko ordezkari politikoak (Miguel De los Toyos alkatea eta zinegotziak). Erdian, mahai gainean, kontsumo jasangarria.

Urtean behin alkatearekin eta zinegotziekin berba egiteko aukera izaten dute Eibarko ikasleek Eskolako Agenda 21ari esker. Ekimen honekin ikasleen partaidetza bultzatu nahi da, etorkizuneko gizarte justua, parte-hartzailea eta jasangarria lortu nahian.

Urtero gai bat lantzen dute Eibarko ikasleek Eskolako Agenda 21ean. Horrela, aurten kontsumo jasangarriaren inguruan egin dute lan. Proiektuaren barruan ikastetxearen eta herriaren diagnostikoa egiten dute urtean zehar. Ikasleek kalen garbitasuna, herriko edu-

kiontzien egoera, birziklapen ohiturak, herriko festa jasangarriak eta saltokiak aztertu dituzte, eta gai horien inguruan identifikatu dituzten arazoak konpontzeko proposamenak prestatu dituzte, gero Udalari eta herritarrei proposatzeko.

17 proposamen

De los Toyosi eta zinegotziei zer esan argitzeko bilera egin

zuten 30 bat ikaslek apirilaren 29an Portalean. Ordu eta erdian kontsumo jasangarriaren gainean egon ziren eztabaidan eta plenora eramango dituzten proposamenen zerrenda osatu zuten. Guztira 17 proposamen aurkeztuko dituzte Udalean maiatzeko udalbatzar berezian. Behin hauek zehaztuta, orain alkateari eta zinegotziei esan beharrekoa prestatu be-



Eskeletako gaztetxoek oso serio hartzen dituzte Agenda 21-eko gai guztiak.

harko dute ikasleek, apirilaren 29an aukeratutako proposamen horiek aurkeztu eta defendatzeko.

Ekimen honetan 9 ikastetxek eta 2.888 ikaslek hartzen dute parte eta aurten 60 proposamen baino gehiago prestatu dituzte Udalari aurkezteko. Hala ere, aurretik aipatu bezala, hauek udalbatzarrera eramane baino lehenago ikasleen elkarlana bultzatu nahi izan da topaketa foro hauen bitartez. Horrela, udalbatzarrera eramango diren proposamenak bateratu eta aukeratzeko aukera eskaini nahi izan da, azkenean hautatutako 17 proposamenak zehazteko.

KATU



KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA


Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



Bulego altzariak eta materiala

PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com



Julio Callejaren KOLABORAZIOA



"Mañana sol y buen tiempo"

"Eguzkia hartzeko gogoak daukat", "Aspertuta nago hainbeste euri eta umeltasunarekin", "Beroa behar dut": horrelako esaldiak behin eta berriro errepikatzen dira sasoi honetan, udaberria esnatzearekin batera. Eta eguzkiak derrepentean bisitatzen gaituenean: "Halako berorik!", "Hau sargoria!", "Egun guztian nago izerditan", "Euri pixka bat botako balu gutxienez!"... Eibarren gertatzen denaren parekoa da: beti entzunez herri honetan ez dagoela ezer, tabernarik taberna gabiltzala, beste herri guztiak kultur-etxeak dituztenean gurean ez dagoela halakorik, etabar. Kultur guneen arloan lehorte handiegia izan eta gero, badaukagu Kultur-Etxea, badugu Coliseoa... eta gune hain eleganteak osatzeko betegarrien faltan gaudela iruditzen zait, eta kultur mugimendua falta zaigula, eta baita jendea ere, eta erreleborik ez dagoela, eta gogorik ere ia batere ez... Eta, azkenean, ez dakit euria egitea komeni den, beroa hobeto etorriko litzaigukeen... Hala ere, ni Kortaturen abestiak zioenari lotuko natzaio: "Mañana sol y buen tiempo"!!!!

ZINEA

'Rabia'-rentzat Urrezko Biznaga

SEBASTIAN CORDERO ZINEMAGILE EKUADORTARRAK ZUZENDUTAKO ETA EITBK LAGUNDUTAKO 'RABIA' FILMAK eskuratu du Malagako Zinemaldi-ko 13. edizioaren Urrezko Biznaga. Gainera, Gizonezkoen Bestelako Aktorerik Onenaren eta Argazkilaritza Onenaren sariak ere eskuratu ditu zintak. Epaimahaiaren Sari Berezia, bestetik, EITBK lagundutako beste ekoizpenarentzat izan da, David Piniñlosek zuzendutako 'Bon appétit' filmarentzat. Unax Ugalde gasteiztarrak, gainera, Gizonezkoen Aktore Onenaren saria eskuratu du pelikula honetan egindako lanagatik.



Europako Zinemaren Euskadiko Astea

FRITZ LANG ZINEMAGILE GERMANIARRAREN 'METROPOLIS' PELIKULAK EMANGO DIO HASIERA maiatzaren 10etik 15era bitartean egingo den Europako Zinemaren Euskadiko Asteari. Mundu mailako ondare dokumental izendatu zuen UNESCOk Fritz Langen luzemetraia eta lehen filma izan zen izendapen hori lortzen. Gainera, Bilbao Philharmonia orkestrak filmearen jatorrizko partitura uzenean joko du. Europako Zinemaren Euskadiko Astea Europa mailako 20 pelikula proiektatuko dira Donostiako Principe, Gasteizko Florida, eta Bilboko Multi eta Renoir aretoetan (sarreraren prezioa 4 eurokoa da). Ikusgai izango dira, besteak beste, 'Amarcord' (Fellini), 'Una jornada particular' (Ettore Scola) edo 'In the Loop'.

ANTZERKIA


Kaleko Artisten Azoka Leioan

KALEKO ANTZERKIAZ GOZATZEKO AUKE-RA EGONGO DA LEIOAN MAIATZAREN 20-TIK 23-RA. Kaleko Artisten Azoka egingo da bizkaiko herri honetan eta 49 konpainia batuko dira bertan (10 euskaldun, 26 espainiar eta nazioarteko 13 aukeratu dituzte aurkeztu ziren 425etatik). Azokak dirauen egunetan 50 ikuskizun egongo dira, horietako 19 erabateko estreinuak eta beste 6 estatuko estreinuak.



III. Artez Blai Ikerketako Nazioarteko Saria

ARTEZ BLAI KULTUR ELKARTEAK, ESTATUTUEK JASOTZEN DUTEN BEZALA, ARTE ESZENIKOEN ARTEAN SORTZEN DIREN FENOMENOEN azterketa eta ikerketa helburu duenez, III. Artez Blai Ikerketako Nazioarteko Saria antolatuta du. Arte Eszenikoen gainean eginiko kritika edo saioa egitea da helburua, praktika bat aztertu, teorizatu, proposatu edo ikertutako lanak aurkeztu. Euskeraz edo gazteleraz egin daitezke lanak eta irailaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira. Lanak ARTEZ BLAI KULTUR ELKARTEA Aretxaga, 8 behea - 48003 Bilbo helbidera edo artez@artezblai.com-era bidali behar dira. Irabazleak, bestetik, 1.000 euro eskuratu ditu eta Artezblai argitaletxearen 'Teoría y práctica' bilduman argitaratuko da bere lana.



**Udaberrirako
BEHAR DUZUN GUZTIA:**

ospakizunetarako jantziak,
egunero erabiltzeko erropa,
moda gaztea eta dibertigarria,
arropa erosoak eta informalak,
oinetakoak,
konplementoak...



Udaberrirako

GEHIGARRI berezia

m o d a

TXUKUNA

Eulogio Garate, 1

**BAINUJANTZI
ETABIKINIAK**

Bainujantzi edo bikini bat erosita,
**MINI-HOZKAILUA
OPARI**



LITTLE KISS

Pijama edo barruko arropan
30 eurotik gorako erosketarekin,
**NEZESERRA
OPARI**




J. Etxeberria, 2

**SEXY
PLANET**

YBOGG

NESKAK




GOIEN

Bidebarrieta, 26

GUZTIONDAKO OINETAKOAK



gratzina



**Bidebarrieta, 18
EIBAR**

S R
S A C H E R


**Andra Mari, 24
DURANGO**




|||||
Egunero
erabiltzeko eta
ospakizunetarako
erropak



Valenciaga
|||||
Zuloagatarren, 1
EMAKUME eta
GIZON MODA



**BETI EHUN
NATURALAK**



gazteendako
erropa
eroso
eta
dotoreak

Arragueta, 9

Irutza



Jesus Sanmiguel arrasatearrak 22 urte egin zittuan Eibarko San Andres parrokixako parroko, azken urtia Arraten. 1997xan Donostiara juan zan eta han hil da martitzenian, 90 urterekin. Azken aldixan, Eibar aldizkarixan kolaboratzen eban, beti be erlijioaren inguruko gaixak aztertzen: fede kontuak, psikologia arlokuak... Juan Pablo II.a hil zanian emon zeskun azken alkarrizketia eta jarraixan han esandakuaren zati batzuk errekuperatzen dittugu omenaldi moduan.

Jesus San Miguel hil da

- Hain mediatikua izanda, batzuren esanetan izar bat hil da. Psikologikoki aztertuta, halan ikusi dozu zuk?

Juan Pablo II.aren biotipuak asko bideratu dau bere tenperamentua. Pablo VI.aren konparatuz, harek jarrera pentsakorra eta barrura begira zekan moduan, azken Aitta Santua ekintza gizona izan da, bildur gitxikua. Bera izendatu eta gitxira, Liberaziñoko Teologixaren inguruko batzarra egin zan La Pueblan eta hara juan zan, sua amatatzera. Pablo VI.a be juango zan, baiña bildur haundixaguaz. Natural jokau dabela esango neuke eta, heriotza be, golf partida baten modura hartu dabela.

- Elixia kate motzian lotuta daguala diñue. Modernidadia, aro barrixa, aldaketiak... badeke tokirik?

Modernidadia antena oso luziak izatian dago, usaintzen hastian pertsonak ikutuzera ixa ailegatzen dan habilidadia da. Umiak eta txakurrak, esaterako, erraztasun haundixagua dake bat ezagutzeko: ez dittue gure hesi kulturalak, sakoneko inkonzientera zuzenago heltzen dira. Juan XXIII.ak, nahiko tradizionalista izanda, arnas barrixa ekarri zetsan Elixari, jakintza haundiko jendia gerturatzeko habilidadia izan zeban.

- Erromako illadak. Hainbeste jende, beste hainbeste ordu. Mobimendu hori benetakua da?

Mundu osoko mobimendu hori ulertzeko, erlijiosidadia pertsonaren konstitutibua dala, horretaz jabetu bihar gara. Barruan dogun indar hori bueltan etortzen da askotan: horrek eraman dau hainbeste jende Erromara. Nik Aitta Santuaren agurra nere kapillan bizi dodan moduan, beste batzuen barruko konstitutibuak hara juatera bultzatzen detse, mundu aurrian agertzera.

- Aitta Santuaren azken sasoiko makalaldixa ikusitta, horren inguruan aldaketarik ikusten dozu? Hurrenguk be hil arte jarraituko dabe karguan?

Hor aldaketak izan leikezela begittantzen jata: lege bat helduko da, Aitta Santuak siñatuta, euren erantzueria izan dadin. Halako ejempluetatik ikasbidiak etaratzen diralako. Historixara jotzen badogu, Leon XIII.a hil ondorengo Aitta Santua izendatzeko konklabian, haren sekretarixua Ranpolla kardenalak ixa gehiengua zekanian, Austriako Francisco Jose I.a erregiaren betua iritsi zan eta, beste bi botaziño egiñ eta gero, azkenian Pio X.ak urten eban. Honen lehelengo



agindua izan zan Elixatik kanpoko agintaririk ez zala beste iñoiz halakuetan sartuko. Aitta Santuaren inguruan, oin kargutik bakarrik burua edo siñesmena galdu badau kendu leiken moduan, edadiaren atxake eta gaixotasunen aurrian, etorkizunian komisiño berezi batek haren tokixa hartu leikiala pentsatzen dot.

- Zelan gogoratuko da Juan Pablo II.aren pontifikaua?

Kirolari bat moduan. Zahartzaruan be gaztetasunian pentsatu dabena. Gaztiak injekziñua izan dira berarendako eta gazte sasoiko idealetara bueltatu da. Baiña hori bertute moduan hartu barik: halakua izan da eta hala hil da.

**Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik
jarri nahi baduzu**

**...eta kitto! aldizkarian duzu
aukera (943 20 67 76)**

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK
ERREFORMAK

LOKALAK
ETXEBIZITZAK

Arragueta, 12 EIBAR **ELGOIBAR Errosario, 15**
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19



Roland Holke, argazkian Jorge Beorlegi kopilotoarekin.

Roland Holke auto-gidaria itzultzekotan da abiadura lehiaketetara

BERE SEAT LEON 1.8 TURNORAKO ZENTRALITA ELEKTRONIKOAREN ZAIN DAGO ESCUDERÍA EIBARKO PILOTOA BERRIRO ERE KONPETIZIORA ITZULTZEKO, oraingo honetan Eneko Artetxe kopilotoarekin. Holkek Klasiko Deportiboen erregulartasun modalitatean hartu du parte batez ere, garaipen asko lortuz eta 6.a izanda Montecarloko 2008koan, aurretik Espainiako rallye txapelketetan lortutako guztia ahaztu gabe.

Bestalde, aurreko domekan Udanako igoera jokatu zen, Aitor Zabaleta Bergarako piloto handiaren garapenarekin. Eibartarrei dago kienez, Iban Tarsicio 7.a izan zen, Joseba García 12.a, Ion Zalloetxebarria 15.a eta Jesus De la Fuente 18.a, 32 pilotoren artean. Bihar Ikasberri-Azpeitia rallysprint-aren XI. edizioa jokatu da, Tarsicio/Peña, Beristain/Olalde, Arrieta/Zubizarreta, Rodríguez/Sarasua, Artaloitia/Liébana eta Zalloetxebarria/Outeriño Eibarko ordezkarien taldeekin.

Manixen Eibar 2. postua ziurtatzera

JOKOAN EZER EZ DUEN BILBAO ATHLETIC IZANGO DU BISITARI EIBAR KEK DOMEKAN IPURUAN, 18.00etatik aurrera, denboraldiko liga erregularrarekin amaitzeko. Ondoren, igoera faseari heldu beharko dio Javier Mandiola entrenatzaile berriaren taldeak eta bertako hiru kanporaketan garaile irten igoera eskuratzeko: ez du lan makala, beraz, Eibarko taldeak, pausuz-pausu egin beharrekoa. Une honetan eibartarrak bigarrenak dira sailkapenean, Palenciak eta Alavesek baino puntu bat gehiagorekin.

Bigarren taldeak berdinketarekin nahiko

3. mailan jokatzen duen Eibar B jaitsiera postuetatik irten ezinik jardun du denboraldi



Aitor Iturbek iaz ere zailtasunak izan zituen bigarren taldearekin mailari eusteko.

osoan eta horrela heldu da azken jardunaldira. Gauzak nahiko alde ditu: Unben jokatuko du, Baskonia aurkariak ez du ezer jokoan eta, horrez gain, berdinketarekin nahikoa du. Galduz gero, ostera, ur handitan sartuko litzateke, bere atzetik daudenak euren partidua aurrera ateratzeko moduan daudelako.

Arratek Asobalen jarraituko du hurrengo denboraldian

MARTITZENEAN ZIURTATU ZUEN MAILA EIBARKO TALDEAK IPURUAN, 2.000 ZALETUEN BABESAREKIN, Octavio Pilotes Posada Vigo taldeari 27-26 irabazi zion partiduan. Atsedenaldira 14-12ko emaitzarekin joan ziren jokalariai aldageletara eta, partidua- ren hasierako minutuak kenduta, eibartarrak aurretik joan ziren markagailuan neurtuta guztian. Rédei eta Cutura izan ziren goleatzaile nagusienak, zortzina golekin, eta Voncina atezainak bikain jardun zuen. Epaileek lotsagabe jokatu zuten eta etxeko taldeen aurka egiten zutela zioen ospeahaintzat hartuta; hala ere, garaipena etxean geratu zen.



Bihar 18.00etan Valladolid Ipuruan

Ligako egutegi arraroari jarraituz, martitzenean jokatu arren, jardunaldi berriari ekingo diote Julian Ruizen mutilek bihar. Valladolid talde indartsua izango da Ipuruan eta eibartarrak zaila izango dute neurtuta euren aldera eramatea Pastoren mutilen aurrean.



Xala eta Patxi Ruizen artekoa Astelenan

PILOTARI PROFESIOALEN 1. MAILAKO BURUZ-BURUKO TXAPELKETAREN LIGAXKEK aurrera jarraitzen dute eta oraingoan Iparraldekoaren eta nafarraren arteko lehia izango da ikusgai Astelenan jaialdiko partidu nagusian. Au-

urretik, beste buruz-buruzko bat, 2. mailakoa, jokatuko da, tartean Oier Mendizabal eta Merino, nor baino nor. Amaitzeko, Ongay eta Ladis Galarza Ibai Pérez eta Urberuagaren aurka jardungo dute. Jaialdia 17.00etan hasiko da.

Ermuko duatloia jokatuko da bihar

DENBORALDIKO EUSKAL HERRIKO DUATLOI ZIRKUITOKO AZKENAURREKO PROBA IZANGO DA BIHAR ERMUAN, tartean Bizkaiko duatloi sprint txapelketa ere jokatuz. Ermuko Triatloi Taldeak antolatzen duen proba arratsaldeko 16.00etan hasiko da eta irteera, helmuga eta boxeak San Pelayo parkean koka-

tuko dira. Herri barruko zirkuitoari itzuli bi eman beharko zaizkio (2,8 kilometrokoa antxintxiketan hasteko eta beste 2,5ekoa amaitzeko) eta, tartean, bizikletarekin 23 kilometro beteko dituzte (Mallabiatik Areitio gainera igo, Zaldibarerra jaitsi eta, Berrizetik, Trabaquarako igoerarekin hasiz, handik Ermura jaisteko).




Bailarako XIII. Foball-7 txapelketarako deialdia zabalik

EIBARKO ETA ELGOIBARKO KIROL PATRONATUEK BAILARAKO XIII. FOBALL-7 TXAPELKETARAKO DEIALDIA EGIN DUTE. Txapelketan parte hartu ahal izango dute 1994an eta aurreko urteetan jaiotakoek eta hilaren 28an baino lehen eman beharko dute izena Ipurua kiroldegian edo Elgoibarko Olaizagakoan. Delegatuen arteko bilera hilaren 30ean egingo da eta izena emateko orduan 60 euro ordaindu beharko dira. Gehienez ere, hogei talde onartuko dira torneoan. Jokatzeko erari dagokionez, lau multzo egingo dira eta, itzuli bakarreko liga antzerakoa egingo da, multzo bakoitzeko irabazleekin azken fasea jokatzeko.

Udaberriko lau partidu gaur Astelenan

ZALETUEN MAILAKO LAU ETA ERDIAREN BARRUKO LAU PILOTA PARTIDU JOKATUKO DIRA GAUR ASTELENAN (20.15). Udaberri torneoari dagozkion neurketak izango dira jokoan, Eibarko Klub Deportiboko hainbat ordezkariarekin: 1.an, Andonegi eibartarrak Iriarteren aurka jardungo du; 2.ean, aurrekoa moduan kadete mailan ere, Eibar-ko Agirresarobek Alegiako Mujikari egingo dio aurre; 3.ean, senior mailan, Egaña Deporrek ordezkariak Rodríguez Zumarragakoa izango du aurrez-aurre; eta 4.ean, Karmona eibartarra Zumarragako Cruz gainditzen ahaleginduko da.



Aurreko asteko partiduetan, bestalde, Klub Deportiboko ordezkariak hainbat garaipen eskuratu zituzten; horrela, Etxanizek 22-7 gainditu zuen Bergarako Rezusta, Karmonak 22-7 Legazpiko Goikoetxea eta Egañak 22-10 Legazpiko Agirre, hirurak ere lau eta erdiaren barruan. Binaka, Etxaniz-Egaña bikotea 22-9 nagusitu zitzaion Eskoriatzakoari.

Eibartarrak 2 Urki 1, Erregionalean

HERRIKO BI TALDEEN ARTEKO AZKEN NORGEHIAGOKA BORROKATUA IZAN ZEN ETA, AZKENEAN, Eibartarrak nagusitu zen gol batengatik, sailkapenean Urkiri aurrea hartuz (18 eta 17 puntu dituzte Kopa fase honetan eta 3.a eta 4.a dira). Igoera fasea jokatzen diharduen Gazteak-ek 2-4 galdu zuen Mariñorekin eta bere multzoko 8. postuan dago.

Eibar Rugby Taldea - Arquitectura domeka eguerdian Unben


ZIRT EDO ZART EGITEKO ORDUA HELDU DA ETA IAZ LORTUTAKO MAILARI EUSTEKO neurketa zaila izango dute Txema Isasaren mutilek domekan, eguerdiko 13.00etatik aurrera, Arquitectura talde handiaren aurrean. Ez dira hauek estatuko errugbiaren historian titulu gehien eskuratutako Madrigo taldearen urterik onenak, baina hala ere talde indartsua osatzen dute eta eibartarren tokiaren bila etorri-

ko dira. Kanporaketako lehen erdia ez zen ondo joan Hierros Anetxeoentzat, 23-10 galdu baitzute Madrilin; emaitza horri buelta ematea "ezinezkoa izan ez arren" (Isasaren esanetan) zaila izango da. Partidu horretarako, gainera, Iñaki Alberdik ezin izango du jokatu, zauria baitu bekainean; Madrilera joaterik izan ez zuen Asier Balseirok jokatu ahal izango du eta Jon Elizburu ere deialdian sartuko dute.



Erreka zintzurak jaisteko ikastaroa


EKAINAREN LEHENENGO ASTEBURURAKO ERREKA ZINTZURRAK JAISTEKO IKASTAROA ANTOLATU DU GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAK. Hastapena eta trebakuntza mailak egongo dira: lehenengoan, amildegia errazak segurtasunez eta autonomiaz jaitsi ahal izateko teknikak erakutsiko dira; eta bigarrenengoan, sokarekin ibiltzeko teknika aurreratuak, ur bizietan ibiltzeko teknikak eta norbere burua zaintzekoak. Prezioa 72 eurokoa da (egun bat) edo 136 (bi egunekoa). Ikastaroaren zuzendaria Felix López izango da (607 142 679) eta, informazio gehiagorako, gmf-federatuak@kirolak.net helbidera jo daiteke.



Ipuruako gimnastak Gipuzkoan irabazle

HERNANIN JOKATUTAKO BANAKAKO ETA TALDEKAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETETAN, Ipuruako gimnastek txapela lortu zuten infantil mailan, bai taldeka (Maria Fernández eta Irati Yarza) eta baita banaka. Azken horretan, M^a Fernándezek hainbat modalitate bereganatu zituen: esku libreak, aroa, mazak eta zinta. Senior mailan Ipurua bigarrena izan zen, banaka zein taldeka.

10 urte bete ditu Eibarko Egoaizia GKE-ak. Laguntzen, elkarkidetzan eman du hamarkada: kooperazio proiektuak sustatuz eta kontzientzia kritikoa suspertuz herrian. Urteurrena ospatzeko hainbat hitzaldi, ikuskizun eta ekitaldi antolatu ditu elkarteak.



GLORIA MORA, Egoaiziako kidea:

“Mundua hobetzeko ilusioz gabiltza lanean”

- Egoaiziak 10 urte bete ditu. Nola laburbilduko zenituzke?

Ez nago hasieratik, baina ezagutzen dut Egoaiziaren ibilbidea. Poliki-poliki hasi zen: San Andres eliza inguruan batzen zen koadrila bat elkartasunaren gaineko kontuetan lanean hasi zen parrokoarekin eta, horrela, GKE-a eratu zen eta kooperazio kontuetan murgildu ziren. Herri-mailan hasi ziren, diru gutxiarekin, eta apurka-apurka instituzioen dirulaguntzak eskuratzen joan zen elkarteak. Nolabait mundua hobetzeko ilusio handiarekin egin dugu lan.

- Lortu duzue munduaren hobetze hori?

Neurri batean. Hegoaldeko herrialdeetan egindako proiektuetan emaitzak ikusi ditugu, hango jendeak euren bizi-baldintzak hobetu dituelako eta herrialde horietako kasuak hona ekarri ditugu jendea jabetu dadin. Gauza txikiak egiten ditugu, baina oihartzun handikoak.

- Zein proiektu dituzue martxan orain?

Pacaipampan (Peru) barrutian proiektua daukagu martxan. Bost urte daramatzagu han Eibarko Udalaren laguntzarekin eta oso positiboa izan da orain arte. Alto Trujilloko (Peru) proiektua amaitu berri dugu hara joan diren hainbat irakaslearen bisitarekin. Egoaizia eta Aldatze ikastetxearen artean heziketa proiektua daukagu martxan Peruko eta hemengo ikastetxeen arteko elkarkidetzak sus-

tatuz. Foru Aldundiarekin, bestetik, Peruko iparraldeko herri batean gabiltza elkarlanean eta beste proiektu bat aurkeztekoan gaude orain.

- Nola dago egituratuta Egoaizia?

Neuk dihardut soldatapeko lanean. Alde serioa deritzogunean, elkarteak presidentea, idazkaria, diruzaina eta bokalak ditu alde serioa deritzogunean. Baina, bestetik, egunerokoan 10 bat boluntarioen taldeak funtzionatzen du. Taldea sortu zutenetarikoz batzuk hemen jarraitzen dute eta hilean birritan bilizen gara normalean.

- Edonor joan daiteke elkartera?


Bai, noski, hori da gure nahia gainera. Egoaizia Eibarko GKE-a da eta eibartarra.

- Zer antolatu duzue 10 urteak ospatzeko?

Garapenerako elkarkidetzak sustatu nahi dugu hainbat ekin-tzen bitartez, baina herri mailan, hemen egiten denak nolako eragina duen zentzu globalean ikusteko. Maiatzaren 11n ‘Garapenerako elkarkidetzak lokaletik: Eibartik mundura’ izeneko mahaingurua egongo da 19.30etan Portalean; 18an hitzaldia ordu eta leku berean; maiatzaren 28an ‘Biltzen’ ikuskizuna ordu eta leku berean; ekainaren 4tik 18ra Egoaiziaren 10 urteei buruzko erakusketa egongo da Untzagako Jubiletxean; eta Sanjuanetan Peruko ‘Proandino’ taldeak musika eki-

Afariketan izena emateko epea laster irekiko dute

UDALEKO EUSKARA SAIALAK UDAKO AISIALDIRAKO ESKAINTZA PRESTATU DU, ASTIXAREKIN BATERA. Lehen Hezkuntzakoentzat (6 eta 12 urte bitartekoentzat), Oporrak Afariketan udaleku irekiak egingo dira, txanda bitan (ekainaren 28tik uztailaren 9ra eta uztailaren 5etik 16ra). Azken urteotako esperientziari jarraituta, egun osoko irteerak egingo dituzte, eskulaneekin eta bestelako jarduerekin tartekatuta. Txikienez, 2004an jaiotakoentzat, Udan Jolasetan ipiniko dute martxan. Ekainaren 28tik uztailaren 9ra, Urkizu, Sansaburu, Amaña eta Jazinto Olabeko ludoteketan 10.00ak eta 12.00ak



bitartean garatuko den programan abesti eta jolasak landuko dituzte. Kasu bietan plaza mugatuak dira eta matrikulazioa maiatzaren 10etik 13ra egingo da, 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara, Portalean (2. solairuan). Nagusien matrikulak 33 euro balio du eta txikienez 21 euro.



Ipurterre sarien banaketa

EGUAZTEN GOIZEAN BANATUKO DIRA AURTENGO IPURTERRE LEHIAKETAKO SARIK, HEZKUNTZA ESPARRUKO ARETOAK 10.00etatik aurrera hartuko duen ekitaldian. Irabazle bakoitzari bere saria emateaz gain, ekitaldia animatzeko ikuskizuna antolatu du lehiaketaren ardura duen ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Aurten Animagic-eko Sun Magoaren trukuekin ederto pasatzeko aukerarik ez da faltako.

Bertso-afaria Illunabarrian

GAUR GAUEAN, 21.30-ETATIK AURRERA, BIDE ALDE ELKARTE GASTRONOMIKOA EIBAR ETA LEA-ARTIBAI TALDEETAKO BERTSOLARIEN ARTEKO DESAFIORAKO eszenatoki bilakatuko da. ...eta kitto! Euskara Elkartearen “Illunabarrian” egitasmoaren barruan antolatutako bertso-afariaren ondoren, Jon Mikel Mujika, Julen Solozabal eta Mikel Arrillagak (Eibar) Iratxe Ibarra, Joseba Artze eta Xabat Galletebeita (Lea-Artibai) izango dituzte aurrez aurre, bapo afalduta bertsoan indarrak neurtzeko gertu.

Dena gertu UEUko udako ikastaroetarako

EKAINAREN 28-AN ABIATUKO DIRA UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEKO 38. UDAKO IKASTAROAK, EIBARREN eta, uztailaren 23ra arte iraungo duen egitarauari jarraituta, gustu guztiak asetzeko moduko ikastaro zerrenda luzea osatzea lortu dute berriz ere. Eibarren ez ezik, Baionan (uztailaren 5etik 9ra) eta Iruñean ere (uztailaren 19tik 23ra) emango dira "Gertu" izenburuaren azpian batutako udako ikastaroak. Eskaintza osoa kontsultatzeko, www.ueu.org hel-

bidera jo daiteke edo, nahiago izanez gero, Markeskua jauregira zuzenean joan. Matrikulazioa astelehenean, hilaren 10ean zabalduko dute eta ekainaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera (ikastaroa hasi baino astebete lehenago arteko matrikulak onartuko dira). Matrikula webgunetik bertatik egiteko aukera ere badago. Bestalde, gogoan izan Eibarko Udalak matrikularen prezioaren erdia ordaintzen diela eibartarrei, baldintza batzuk betez gero.

Zoroetxeko gorabeherak taula gainean




ZAPATUAN, 20.30-ETAN, LA ZARANDA ANTZERKI KONPAINIAK "FUTUROS DIFUNTOS" ANTZEZLANA TAULARATUKO DU Coliseoan. Gapar Campuzano, Francisco Sánchez eta Enrique Bustos aktoreak protagonista dituen lanak zoroetxe batean bizi diren lagunen gorabeherak kontatzen ditu; zoroetxeko ardura hilda, gaixok egoera berriari aurre egin beharko diote, besteak beste ordura arte ukatu zaien askatasunera moldatuta. 30 urteko ibilbide luzea duen Andaluziako antzerki konpainiak lan honetan Frantziako Tolosako Théâtre Sorano taldearekin dihardu elkarlanean. Sarrerak 10 euro balio du eta aldeztu aurretik eta bihar bertan erosteko aukera dago.

Euskal jairako txartelak salgai

MAIATZAREN 23-TIK AURRERA HASIKO DIRA AURTENGO EUSKAL JAIKO EGITARAUA OSATZEN DUTEN EKITALDIAK baina, urtero egiten den moduan, jaia antolatzeaz arduratzen diren Klub Deportiboko ordezkariak bazkari zein afarirako txartelak aldeztu aurretik erostea komeni dela gogorarazi nahi diote jendeari. Kantu-afaria hilaren 29an izango da, 22.00etan eta herri-bazkaria, berriz, hurrengo egunean, maiatzaren 30ean, 14.30etan. Txartelak Deportiboan bertan eta

Kulturalean eros daitezke, maiatzaren 23ra arte. Ume, ikasle eta langabetuek 14 euro ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 20 euro. Hilaren 29ko kantua afariaren aurretik, herri-bertso-parranda abiatuko da karpatik, 18.30ak aldera.



Argazkiek beteko dituzte aretoak

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAK ANTOLATUTAKO ARGAZKILARITZA MAIATZEAN MARTXA

BETEAN SARTUKO DA GAURTIK AURRERA, lehendik zabalik dauden argazki erakusketei gaur inauguratuko diren beste batzuk gehituko zaizkie eta. Maiatzaren 30era arte Portaleko erakusketak aretoak 29. Argizaiola Lehiaketako lanak, Jordi Planaren "Ànimes" izenburuko instalazio berezia, Virginia Arakistain eibartarraren erretratuak eta Espainiako Argazkilaritza Konfederakuntza-

ren "Fondos Fotográficos" izenburuko bilduma hartuko ditu, denak batera. Eta Topalekuan, berriz, Juan Miguel Alba Molinaren "Tribus de Orissa" argazki-erreportajea ikusgai egongo da, gaur hasi eta hilaren amaiera arte.

2010 Argizaiola Saria Bilbora

Emilio Muñoz Blanco bilbotarrarentzat izan da 2010 Argizaiola garaikurra, "Escalera III" izenburuko argazkiari esker. Euskal Herriko Argazkilaritza Taldeen Elkarteak ematen duen saria antolatzen diren lehiaketetan ematen diren artean garrantzitsua da.



laburrak

AUTOBUSA HERRI URRATS-ERA

Domekan Senperen ospatuko den Herri Urrats jaialdira joateko autobusa antolatu dute...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan Antonio Mogel ikastolako Gurasoen Elkarteak. Autobusa Ego Gain kaleko autobus geltokitik irtengo da, 09.30etan eta Eibarrera buelta, berriz, 19.30etan egitea dago aurreikusita.

1948-KOEN BAZKARIA

Maiatzaren 22an afaria egingo dute urte horretan jaiotakoek, 21.30etan Arrate hotelean. Joateko asmoa dutenek hilaren 17rako 60 euro sartu beharko dituzte Untzagako Euskadiko Kutxan, 078.1.03181.1 kontu korronte zenbakian.

ARRAINDIKALE-KOEN BAZKARIA

Bihar egingo dute urteroko bazkaria gaur egun desagertuta dagoen Arraindikale kalekoek. Chalcha jatetxean bazkalduko dute eta bertan elkartuko dira, 13.30etan.

JORDI PLANA,

argazkilaria

- Nolako da Portalean ikusgai dagoen erakusketa?

Hasiera batean ikusten denez, behintzat, 50 bat argazki eta ikus-entzunezko instalakuntza bi daude. 'Animas' titulua darama eta honen bitartez Kataluniako moja komentu batean gerraostean bizitakoa isladatu nahi dut.

- Nondik dator kizua ideia hau?

Komentu handi batean arte-jardunaldiak egiten ditugu urtean behin, inongo zentsurarik gabe artearen gainean nahi duena espresatzen dute parte-hartzaileek, eta, horren ondorioz, nahikoa denbora igarotzen dut bertan. Komentu hartako Gerra Zibilaren osteko bizimodua ekarri nahi izan dut erakusketa honen bitartez. Garai hartan mojak, umezurtzak, apaizak eta edonolako langileak elkarrekin bizi ziren. Giro berezia zen, intimitatea urratzen zen, jendeak bere buruaz beste egin zuen... gauza guzti horiek isladatu nahi izan ditut erakusketa honen bitartez. Horrela, 50 bat argazki aurkezten ditut, nahiko txikiak, izan ere, jendea horietara hurbiltzea nahi dut. Gainera, argi gutxi egongo da erakustokian eta joaten denak linterna bat jasoko du argazkietan azaltzen den horren errealitatea hobeto ikusteko. Bestetik, ikus-entzunezkoen instalakuntza bi daude. Batean kalea ikusten da, komentuaren kanpoaldea izango litzatekeena, eta jende anonimoa pasatzen da handik. Gustatuko litzaidake, gainera, hona datorren jendea proiektorearen aurretik pasatzea jende anonimo horrekin bat egiteko. Beste ikusentzunezkoan, bestalde, komentuaren arima horiek modu batean hurbiltzen dituen solista bat agertzen da txeloarekin musika egiten.

Kataluniako komentu baten arimak bildu ditu Jordi Planak gaur hasi eta maiatzaren 30ean Portalean ikusgai egongo den argazki (eta ikus-entzunezko) erakusketan. Iluntasunean murgilduta, txeloaren soinuaren laguntzaz komentuko bizilagunak Portalean izango dira.



“Ez dut sariak lortzeko lan egiten”

- Nahi zenuena azaltzea lortu duzu?

Baietz esango nuke. Zaila da bakoitzak espresatu nahi duen hori besteei azaltzea eta argi dago pertsona bakoitzak bere interpretazio propioa egiten diola ikuste duen horri. Lan honekin, printzipioz, espresatu nahi nuena azaltzea lortu dudala uste dut.

- Zure aurreko lan batzuk eta hau ere ikusita, argazkiaz gain bestelako euskarriak erabiltzeko ohitura daukazula antzematen da.

Argazkilaria naizela esango nuke, baina irudiarekin eta soinuarekin lan egitea ere gustatzen zait, azken urteotan batipat.

Gai baten gainean lan egitea da gustatzen zaidana, gai baten inguruan argazkiak egin, eta irudi eta soinuarekin jolastea. 'Animas' erakusketa honetan, adibidez, uste dut ez litzatekeela berdina izango argazkiak ikustea komentu barruan legokeen musikari horren soinuarekin gabe.

- Jaso dituzun sariak, gutxienez, zure lana goresten dute.

Pozgarria da, noski, baina ez dut lan egiten sariak lortzeko helburuarekin. Egia esan, agian adinarengatik, azaldu nahi dudanaren arabera egiten dut lan eta ez besteek zer iritziko dioten pentsatuz. Besteen iritzia axola zait, noski, baina ez asko. Nahiago dut nire buruarekin

gustora geratzea. Egindako lanagatik sariak jasotzen badituzte, bikain, baina ez da nire helburu nagusia.

- Polaroida eta telefono mugikorrek erabili dituzun azken aldiaren zure lanetan.


Aro digitalean erabat sartuta gaude eta horrek eskaintzen dituen aukerak lanean ibili naiz azken urteotan. Polaroida, telefono mugikorren kamerak, Photoshoppa... euskarri horiekin esperimentatu dut eskaintzen dituzten aukerak landuz. Momentuan sentitzen dudana egiten saiatzen naiz.

- Zer behar du argazki batek ona izateko?

Ikustea.

- Zure argazkiren batekin pentsatu ahal duzu: “Tira, hau da inoiz egin dudana argazkirik onena”?


Argazki horren zain nago oraindik eta horretan dihardut. Argazkiak onak izan daitezke, baina baita politak ere. Baten batek esan ahal dit, “argazki polita atera duzu”, eta nik eskerrak emango dizkiot, baina polita izango litzateke, ez ona. Ez dira kontzeptu berdinak, nik argazki onak egitea nahi dut, ez politak. Postalak politak dira niretzat, baina ez ditut postalak egin nahi.




Linterna bat beharko da argazkiak ikusteko. EKHN BELAR

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, DANEL López Egaña, hillaen 11n hiru urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, ANDER Trebiño, gaur 25 urte egiten dozuzelako. Eiparrandako lagunena partez.




Zorionak, PANA, eguaztenian zure urtebetetzia izan zalako. Etxekuen partez.




Zorionak, MANEX. Gure mutikotxuak hareñegun urte bi egin zittuan. Paa haundi bana famelixakuen partez.




Zorionak, IGOR, gaur 11 urte egiten dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, AIMAR Calderón Azkunaga, zure 1. urtebetetzia, aitatxo, amatxo, aitxitxa-amama eta famelixaren partez. Aupa Eibar!!!



Zorionak, AITOR eta LAURA. Ondo-ondo pasa zapatuan. Famelixaren partez.



Zorionak, ARANTZA eta RAMON, gaur urrezko eztaiak betetzen dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, amama BEGO eta aitxitxa JOSE, zuen urrezko eztaietan. Maiatzaren 7x 50 urtetan alkarrekin ospatzen. Muxu haundi bana famelixaren partez. Askio maitte zaittuegu!!!



Zorionak, MARI LUZ eta ROBERTO, hillaen 7xan 50 urte ezkonduta bete dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Gisasola (hillaen 8xan) eta ANA Oiarzabal (hillaen 12xan) zazpi urte egiten dozuz-eta. Famelixaren partez.

zinea Coliseoan

7an, 20.30etan; 8an, 19.45 eta 22.30etan; 9an, 20.00etan; 10ean, 20.30etan.

"El plan B"

Zuzendaria: Alan Poul
Aktoreak: Jennifer López, Danneel Harris, Noureen DeWulf, Anthony Anderson...



Urteetan hainbat mutilekin irten eta gero, Zoek erabaki du bere azukre koxkorri gehiago ez itzarotea eta, ama izateko gogoak bultzatuta, plan bat prestatu du beste inor barik lortzeko. Sendagilearengana joan eta Stan kandidato ederra aurkitu du.

"Un profeta"

Zuzendaria: J. Audiard
Aktoreak: Tahar Rahim, Niels Arestrup, Adel Bencherif, Hichem Yacoubi...



Sei urteko kartzela zigorra jasoko du Malik El Djebenak. Ez daki ez idazten ezta irakurtzen ere eta beste inor baino ahulago dirudi presoan mundu horretan. Misio batzuk ezarriko dizkiote barruko liderraren babesarekin lortzeko, baina beste plan batzuk ditu.

"Noche loca"

Zuzendaria: Shawn Levy
Aktoreak: Steve Carell, Tina Fey, Mark Wahlberg, James Franco...



Nueva Yorkeko senar-emazte ezin aspergarri horietako batek, gau-jai erromantikoa ospatzen diharduela, di-da batean guztia zelan aldatzen den ikusiko du eta arriskuz eta adrenalinaz betetako beste mundu batera egingo du jauzi. Gau zoroa.

JAIOTAKOAK

- Maitane Romero Herrera. 2010-IV-15.
- Noa Agirre Berasain. 2010-IV-24.
- Pablo Casado Iglesias. 2010-IV-27.

HILDAKOAK

- Juanita Txurruka Kortaberria. 79 urte. 2010-IV-29.
- Santiago Basurko Txurruka. 78 urte. 2010-IV-29.
- Luis M^a Las Heras Iturrioz. 86 urte. 2010-V-2.
- Carla Iglesias García. 2 urte. 2010-V-2.
- Inocencia Oiarzabal Zubizarreta. 93 urte. 2010-V-3.
- Jesus Sanmiguel Egiluz. 90 urte. 2010-V-4.
- Lucia Añibarro Isasti. 83 urte. 2010-V-5.

horoskopoa

ARIES

Eguraldi zoro honekin zure gorputza nahiko ahul dabil. Zer egin horren aurka? Zaindu ahal bezain ondoen, emaitza ezinhobeak emango dizu-eta.

TAURUS

Asteburua gogo onez hasiko duzu. Egunak egon zara momentu horren zain eta ederki aprobetxatuko duzu. Askok nahiko lukete zurea!!

GEMINI

Ezin duzu ezetz esan. Hainbeste espero zenuen aukera aprobetxatuta, oraingoan ez diozu uko egingo. Dena dela, ausartagoa izan zaitez.

CANCER

Astehenean jandako zerbaitek kalte egingo dizu eta triapak nahastuta izango dituzu. Arroza gustatzen zaizu, ezta? Bada, aurrera!

LEO

Urte hasieran hainbat proposamen idatzi zenituen paper batean, baina horietariko gehienak ez dituzu bete. Zurea bai benetako hitza!

VIRGO

Gauza bat lortzen saiatuko zara, baina justu kontrakoa lortuko duzu. Hurrengoan badakizu, saia zaitez nahi duzun horren kontrakoa lortzen.

LIBRA

Zure esku dagoena konpondu ezin badozu, ezin diezu besteei eskatu zure kontuak konpontzeko. Zugar konfidantza gehiago behar duzu.

SCORPIUS

Zurumurrua iritsiko da zure belarrietara eta zuk azkarregi irekiko duzu ahoa. Nahaste handia bihurtuko da zurearen inguruan.

SAGITTARIUS

Baliteke zure desioak ez betetzea, baina zoriontsua izan zara hala ere hurrengo egunotan. Gutxiarekin konformatzen diren horietakoa zara.

CAPRICORNUS

Zerbait harrigarria gertatuko zaizu eta inork ez dizu sinestuko. Eurentzat okerrago, inork ez dizu kenduko bizitako emozio eta zirra.

AQUARIUS

Ez hartu pisu handirik, nahiko ahul ibiliko zara-eta datorren astean. Ohetik jaikitzea ere nahiko pelikula izango da eta kostatuko zaizu.

PISCIS

Gauzak egiten azkarra zara, baina beste kontu bat da nola egiten dituzun. Hobe da astiro eta ondo egitea, azkar eta trakets baino.

Barixakua 7

BERTSO-DESAFIOA

21.00.- Afaria eta bertso-desafioa, Illunabarrian programaren barruan. Bide Alde elkarre gastronomikoan.

Zapatua 8

SANTA KURUTZEKO JAIAK

10.30.- Kanpaiak eta suziriak.
11.00.- Meza, Santa Kurutzeko ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Hamaiaketakoa.
12.00.- Bertsolariak: Juan Mari Narbaiza eta José Luis Gorrotxategi. Trikitilariak: Jon Ostolaza eta Unai Andonegi.
12.30.- Haurrentzako jolasak.
13.00.- Herri jolasak, auzoko gazteen eskutik.
14.30.- Bazkaria, Ixua jatekxan. Erromeria, Jon Ostolaza eta Unai Andonegiren eskutik.

BAZKARIA

13.30.- Arraindikale kalekoen bazkaria. Chalcha jatekxan.

ANTZERKIA

20.30.- "Futuros difuntos", La Zaranda taldearen eskutik. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

Domeka 9

HERRI URRATS

09.30.- Herri Urrats jaialdira (Senpere) joateko autobusa, Ego Gaietik (buelta 19.30etan).

SANTA KURUTZEKO JAIAK

10.30.- Kanpaiak eta suziriak.
11.00.- Meza Nagusia Santa Kurutzeko ermitan. Piskolabisa.
12.00.- Soka-dantza, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik. Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilarien emanaldia.
13.00.- Herri kirolak, Fausto eta Ugaitz Mugerza aita semeak aizkora eta Urdax eta Beñat gazteak harrijasotzen.
14.00.- Jaien amaierako suziriak.

KULTUR ARTEKO JAIA

11.00.- Kultur Arteko Jaia: Maroko, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Uruguay, Euskal Herria... Jaki tipikoak, artisautza salmenta, tailerrak, musika, dantzak...

Martitzena 11

EGOAIZIAK 10 URTE

19.30.- Mahaingurua: "La cooperación al desarrollo desde lo local: Eibartik mundura". Portalean.

Eguaztena 12

IPURTERRE

10.00.- Ipurterre ipuin lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. Animagic magia ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

DANBORRADA

19.00.- Umeen danborradarako entsegua.
20.00.- Helduen danborradarako entsegua. (Bittor Sarasketa, 7).

MAHAINGURUA

19.30.- "Nola sendotu bakerako aukera?", Lokarri-ren eskutik. Paul Rios (Lokarriko koordinatzailea) eta Garbiñe Biurrun (EAEko Auzitegi Nagusiko gizarte saileko burua). Portalean.

Eguena 13

IKASTEN

10.00.- "Residuos", Elena Egurrolaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).
19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Un lugar donde quedarse" (Zuz: Sam Mendes). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

EUSKALTZALEEN BILERA

19.30.- "Tantanez Tantan, Eibarren euskeraz bizi" ekitaldia antolatzeke bilera irekia. Arrate Kultur Elkarte.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

		2				4		
7				1				6
4			3		5			9
		4	1		3	5		
	1						9	
		3	9		6	2		
9			6		8			1
3				2				5
		1				6		

5	0	4	2	1	0	3	7	0
3	7	9	0	4	5	1	2	6
0	2	1	3	9	7	5	4	8
7	0	6	4	5	1	8	3	2
0	3	5	9	7	2	4	0	1
1	4	2	5	3	8	7	9	5
4	5	8	7	2	9	6	1	3
2	0	3	1	0	4	9	5	7
0	1	7	5	6	3	2	5	4

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Maiatzaren 30era arte

VIRGINIA ARAKISTAIN en argazki erakusketa. Portalean.

CONFEDERACION ESPAÑOLA DE FOTOGRAFIA ren "Fondos Fotográficos" argazki erakusketa. Portalean.

JUAN MIGUEL ALBA MOLINA ren argazki erakusketa. Topalekuan.

– Maiatzaren 31ra arte

29 ARGIZAIOLA LEHIAKETA argazki erakusketa. Klub Deportiboan.

KLUB DEPORTIBO ko Argazki Taldearen lanak. El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako Jubilatua.

– Maiatzaren 13tik uztailaren 23ra

"ARTE Y ARQUITECTURA EN EIBAR" maketa erakusketa. Armagintzaren Museoa.

ikastaroak

– **Argazkilaritza Maiatzean tailerrak.**

"Retrato en estudio", Mamén Mari-rekin. Noiz: Maiatzak 15, 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 19.30etara. Portalean. Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com (doan).

"Un estudio fotográfico en la calle". Noiz: Maiatzak 22, 10.00etatik 14.00etara. Untzagan. Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com (doan).

– **UEUko Udako Ikastaroak.**

Matrikula: **Ekainaren 20**ra arte. Informazioa: www.ueu.org, 943821426 telefonoan.

– **Oporrak Afariketean.**

Norentzat: LH-ko 1.mailatik 6. mailara bitartekoentzat. Noiz: Txanda bi (ekainaren 28tik uztailaren 9ra, uztailaren 5etik 16ra).

– **Udan Jolasetan.**

Norentzat: 5 urteko haurrentzat (2004an jaiotakoak). Noiz: Ekainaren 28tik uztailaren 9ra, 10.00etatik 12.00etara.

lehiaketak

– **Sanjuanak 2010 Eibarren kartel lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 14**ra arte, Pegoran.

– **Alkohol Gehiegikeriaren Kontrako Umorezko Pegatina Lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 14**ra arte, Pegoran.

– **2010-2011 Eskola Agenda argazki lehiaketa.**

Norentzat: 12 eta 18 urte bitarteko eibartarrentzat. **Maiatzaren 14**ra arte, Pegoran.

– **Li (buru-hausgarriak).**

LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat. **Ekainaren 14**ra arte, Liburutegian.

farmaziak

7, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

8, zapatua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

9, domeka

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

10, astelehena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ibarronda** (Zeharkalea, 2)

11, martitzena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

12, eguaztena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

13, eguena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

14, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

Izen-ematea: **Maiatzaren 14**ra arte, 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara, Portalean.

telefono jakingarriak

SOS deiak112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea943 70 07 99
Debegesa.....943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak.943 46 46 22
Gurutze Gorria..943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia.....943 03 25 00
Torrekua943 03 26 50
Errepideak.....902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa902 10 12 10
Taxiak.....943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.30, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Karlos Elgezuan (Amaña). 60 m². Logela bikoitza bi, egongela, sukalde handia eta komuna. 24.600.000 pezeta, negoziagarriak. Tel. 943-201657 edo 696-348630.
- Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpora. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.
- Duplexa salgai Elgetan. 85 m². 3 logela, egongela beheko suarekin, sukaldea eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzia. Aukera ona. Prezioa adosteko. Tel. 685-751891. Idoia.
- Pisua salgai Bidebarrieta kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan. Tel. 635-209084.
- Errebal kalean pisua salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komuna bi, despatxo eta terraza. Berritua eta argitsua. Deitu arratsaldez. Tel. 605-772606.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berritua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 660-268797.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-714616.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-474923.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 664-111706.
- Mutil bateko logela bat du alokatzeko Eibarren, Bidebarrieta kalean. Tel. 630-392468.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Otaola Etorbidea, 27an. Gazte kuadrila batentzako aproposa. Tel. 657-795679.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 686-234612.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 943-171583 edo 608-474923.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi jarduteko. Tel. 697-481489.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako (pegorak, tabernak). Tel. 648-603029.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 677-155611. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, garbiketarako egin edo sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-690415.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 663-682150.
- Neska eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 648-951982. Marizza.
- Neska eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 638-196512. Maria Teresa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, baita gaeuz ere, eta tabernako sukaldari moduan lan egiteko. Tel. 680-223378 edo 943-530132.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 649-044223.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-311395.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel. 626-246543.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak arratsaldez zaintzeko. Tel. 659-222426.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo tabernan lan egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 691-808493.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 618-714616.
- Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 680-484679.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da sukaldari edo kamarero moduan. Tel. 686-077316.
- Erizain laguntzaile eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-283671.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna edo orduka. Tel. 662-247584.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-516240.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-582150.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan. Esperientzia. Tel. 688-687563.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-001196.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Geriatria ezagutzak. Tel. 638-899860.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Asteburuetan ere. Tel. 646-180072.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu, arratsaldez eta gaeuz. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egin eta nagusiak zaindu. Tel. 656-493864.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbitzeko, pintore, igeltsero... jasotzeko eta nagusiak zaindu. Tel. 686-274490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo gaeuz ospitalean egoteko. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Goizez. Tel. 666-156651.
- Erizain laguntzaile eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 658-030724.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu. Erreferentziak. Tel. 648-143804.

- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 649-808071.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-531903.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 618-096628.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko: umeak, nagusiak, garbiketarako. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu. Geriatria kurtsoa egina. Tel. 646-235195 edo 943-531903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.

4.2. Langile bila

- Neska behar da uztailean ume bi zainduko. Deitu 19.00etatik 21.00era. Tel. 943-120184.
- Sukalde munduan jardundako mutil dinamiko behar da jatetxe bateko partaide izateko, proiektu berriztagarriekin. Tel. 943-207019.
- Komertziala behar da Euskaltelen. Tel. 617-724796.
- Ile-apaintzailea behar da, 1. maila ko ofiziala. Tel. 943-254512.
- Emakumea behar da moda denda baterako. Tel. 622-093424.
- Asteburuetarako sukaldari-laguntzailea eta aste osorako terrazan zerbitzeko kamareroa (ezinbestekoa euskeraz jakitea) behar dira Klub Deportiboan. Tel. 943-207044.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- EGA titulodun injeniaritza ikasleak Batxilergora arteko ikasgaien klase partikularrak ematen ditu. Orduka. Tel. 679-560138.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Garbigailua (Otsein Hooven) salgai. Goitik kargatzekoa. Ia berria. Tel. 943-121051 edo 636-096283.
- Kotxe-kapota salgai, silla eta maxi-coxiarekin (Bebe Confort urdin marinoa). Silla-baston eta autoarendako-sillarekin. Tel. 617-256466.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Anorak moduko urte biko ume baten txaleko marroia galdu da Untzagako bankuetan. Balio sentimental. Tel. 635-711528.
- Zapatuak ikastolako jaialdian zilarrezko orratza galdu nuen. Balio sentimental du. Tel. 696-781138. Edurne.

Ignacio Zuloaga Institutua EIBAR



Ignacio Zuloaga Institutua

non dago aurrerapena?
euskeraz bizi dena?
aukerarik onena?
non eman izena?
Ignacio Zuloaga institutuan
hor daukazu dena!

Dereduan 29 URTE

Batxilergoan espezialduak
Artistikoa (A eta B ereduak)
Giza eta Gizarte zientziak (A)
Zientifiko/ teknikoak (A)



ELKARTRUKEAK
Europako ikastetxeekin
1. mailan Ingalaterrara
2. mailan Alemaniara



Ignacio Zuloaga BHI Tel. 943208349 www.ignaciozuloaga.net
-e-maila- 012055aa@hezkuntza.net Jardinet 3 Eibar

Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Éhun urte baino gehiagotan Aldatze Eibarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzutez, gaurkotzeaz -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta dira oraindik gure lanaren oinarriak.

MATRIKULA ZABALIK Batxilergoko modalitateetan

Lau hizkuntza
Mazaketa teknikoa
Biologia
Ekonomia
etabar



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDE OXO BAT HEZTEN

ELEBI-DUN IKASTETXEA

2 URTEK 18RA BITARTEKO IKASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATEKO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIK
IRASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANEKO ORDUTEGIAK BATERAGARRI EGITEKO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colegio Santa María
de la Providencia

Aldatze kalea, 3 Eibar - Gipuzkoa
TEL: 943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75